



OINARRIZKO EKINTZA

Gure sare sozialen bidez ezagutuko gaituzte eta horiek izango dira gure lehen bezeroak. Erabiliko dugun sare soziala Instagram-a izango da. Horretaz gain, webgune bat izango dugu bezeroek produktuak erosi ahal izateko.

Hasteko, bezeroak tabernara iristean, ditugun zerbitzuak eskainiko dizkiegu.

Bi menu izango dira, bertan, sarguneak, hanburgesak, entsaladak, postreak eta kafeak edukiko ditugu.

Sarguneak: Patata brabak, kalamarrak, tekeñoak, kroketak, natxoak, oilasko fingerrak, Top fries Bacon and Cheese, alitak...

Hanburgesak: 10-12 hanburgesa eskainiko ditugu, jendeari gehien gustatzen zaion moduan eginak daudenak, "Smash hanburgesak". Hanburgesa bakoitza desberdina izango da, gure hanburgesak osatuko dituzten elikagai ezberdinak izango dituzte. Hanburgesen haragia behiarena izango da, eta hanburgesa ezin hobea egingo duten osagaiak hauek dira: mac and cheese, gazta, bacon, arrautza frijitua, tequeños, ahuntz errulua eta pulled pork. Hanburgesa bakoitzak ere saltsa edukiko du: etxeko saltsa, bacon marmelada, tipula marmelada, lotus krema eta bbq saltsa.

Entsaladak: Ez dugu entsalada zehatzik izango, hainbat osagai eta saltsa jarriko ditugu aukeran. Entsalada 5 osagaik eta saltsa batek osatuko dute. Osagaiak hauek dira: uraza, makarroiak, atuna, tipula, mozzarella gazta, azeitunak, azenarioa, oilaskoa (plantxan edo enpanadan), ahuntz errulua, "picatostes", ahukatea, tomatea, artoa, piperrak ("Piquillo" edo "Padron"), cherry tomatea eta arrautza. Saltsak hauek dira: César saltsa, yogurt saltsa, olio eta ozipina, modena ozipina eta pikillo saltsa

Postreak: Gazta tarta, Gofreak, Crepe, Flana, Helatu bolak (txokolate, bainila, nata), natilak, torrija helatuarekin, txokolatezko "coulant"-a, arroz esnea, hiru txokolatezko tarta, mamia.

Kafeak: Kafe hutsa, kafesnea, ebakia, kaputxinoak, bonboi kafea

Infusioak: tea, kamamila, valeriana, tila, menda-infusioa, jengibre-infusioa, fruta-arbolen infusioa (fruitu gorriak, meloia, limoia, pomeloa, mangoa, anana edo sandia), poleoa eta te beltza.

Menuari dagokionez, 2 mota egongo dira. Alde batetik, bazkal ostean lo egiteko aukerarekin, bestalde, lo egiteko aukerarik gabe, bakoitzaren gustora.



Lo egiteko aukera gehitzerakoan prezioak igo egingo dira, hamburgesa jan + siesta egitea ordaintzen delako. Prezioa 15 minuturo igotzen joango da.

Gutxienekoa, 15 minutuko siesta izango da eta gehienekoa, ordu bat eta 30 minutukoa.

Horretaz gain, beste zerbitzu batzuk eskainiko ditugu.

Astean bi egunetan, gauetz monologo bat egongo da eta haiekin batera karaokea egiteko aukera emango dugu, parte hartu nahi baldin baduzu, tabernan zerbait kontsumitu beharko duzu.